ELKARGOAK EUSKARAZ

59 Jakizu
BIKAIN ziurtagiria - Hizkuntza eskubideak - Egunean Behin
Certificado BIKAIN - Derechos lingüísticos - Egunean Behin
2026 Maiatzak 11

BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZERA!

Lehenengo aldiz aurten *Elkargoak Euskarazen* parte hartzen duen elkargo bat Bikain ziurtagiria eskuratzen saiatuko da.

Bikain ziurtagiriak erakunde batek noraino bermatzen duen zerbitzua euskaraz eta noraino lan egiten duen ere hizkuntza horretan ziurtatzen du.

Gipuzkoako Gizarte Langintza izango da uda ostean ebaluazioan aurkeztuko den Elkargoa eta espero dugu datozen urteotan elkargo gehiago urrats garrantzitsu hori ematera animatzea.

Bikain ziurtagiria eskuratzeko 1000 puntu arteko ranking bat dago eta hor 3 mailetako bat eskura daiteke jasotako puntuazioaren arabera: Oinarrizkoa, Erdiko Mailakoa ala Goi Mailakoa. Urtero 20 bat erakundek jasotzen dute eta une honetan 400 erakunde baino gehiagok daukate.

¡A POR EL CERTIFICADO BIKAIN!

Por primera vez este año un colegio partícipe de *Elkargoak Euskaraz* intentará obtener el certificado Bikain.

El certificado Bikain certifica hasta qué punto una entidad garantiza el servicio en euskera y hasta qué punto trabaja en ese idioma.

El Colegio que se presentará en la evaluación después del verano será el de Trabajo Social de Gipuzkoa y esperamos que en los próximos años más colegios se animen a dar este importante paso.

Para obtener el certificado Bikain hay un ranking de hasta 1000 puntos donde se puede obtener uno de los 3 niveles en función de la puntuación obtenida: Básico, Medio o Superior. Cada año lo reciben unas 20 entidades y en este momento lo tienen más de 400 entidades.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Behatokiak *Hizkuntza Eskubideen Egoera 2025* txostena aurkeztu du. Iaz Behatokiak 984 intzidentzia jaso zituen. Horietatik 883 kexak izan ziren, hizkuntza eskubideen urraketengatik, 69 zoriontze eta 32 kontsulta. Badago ere Elebide zerbitzua eta bere azken memoriaren arabera, 161 erreklamazio jaso zituen, 11 galdera eta 4 proposamen-eskaerak. Beraz, guztira, urtean 1.000 erreklamazio baino gehiago egiten dira euskara ezin erabiltzeagatik.

DERECHOS LINGÜÍSTICOS

Behatokia ha presentado el informe *Situación de los Derechos Lingüísticos 2025*. El año pasado recibió 984 incidencias. De ellas, 883 fueron quejas por vulneraciones de derechos lingüísticos, 69 felicitaciones y 32 consultas. También existe el servicio Elebide que, según su última memoria, recibió 161 reclamaciones, 11 preguntas y 4 solicitudes de propuestas. Por lo tanto, en total, se realizan más de 1.000 reclamaciones al año por no poder utilizar el euskera.

EGUNEAN BEHIN JOKOA

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia maiatzaren 11ren eta uztailaren 12aren artean jokatuko da, 9 asteko lehian. 65 milioi partida, 60.000 lagun egunero elkarrekin jokoan eta 80.000 galdera baino gehiago.

Ohiko asteko babesletzak eta sariak izango dira, eta denboraldikoak ere bai, kasu honetan Tokikom toki komunikabideen bateraguneak babestuta. Animatu parte hartzera!

JUEGO EGUNEAN BEHIN

La 21ª temporada del juego Egunean Behin se disputará entre el 11 de mayo y el 12 de julio, en una competición de 9 semanas. 65 millones de partidas, 60.000 personas jugando juntas cada día y más de 80.000 preguntas.

Habrá patrocinios y premios semanales y por temporada, en este caso arropados por Tokikom.

¡Anímate a participar!